

IRITZIA

Juan Luis
Mugertza

ERREPORTAIA

Trinitate jaietako
Nagusien
Tanborrada

UDALETXETIK

Eguneko Zentroa
martxan

GEHIGARRIA

kiliBARREN

KIROLA

Ana Etxaniz,
Gipuzkoako
atletismo
txapelduna


GAZTAROA

Herri
Institutuko
ikasleak
Antzerki
Jardunaldietan

BARREN

1997ko maiatzaren 23a
V. urtea - 195. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Hemen dira

"Al ai t asuna, zenbat eta gehiago gastatu orduan eta gehiago eduki ko"

Gremioen gida honetan azaldu
nahi baduzu, deitu !

☎ 74 37 04

ARROZTEGIAK

BIENA
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI
Leihoak-Armairu
enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 29 94

LODOSO
Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE
Leihoak-Armairu
enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL
Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI
Erretxindi, 1
☎ 74 14 80

JUAN CARLOS S.L.
Urasandi 59-61, behe
☎ 74 34 87

PAGOAGA
San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

ZALDUA
Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA
Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

IGELTSERITZA

KIDEOK S.L.
San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ANTONIO MARKEZ
Urasandi, 24
☎ 74 34 18

PATXILLO
Pedro Muguruza, 13-5
☎ 908 31 96 42

PINTURAK

**PINTURAS ELGOIBAR
FERMIN**
Urasandi, 57-3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

JOSE PINTURAK
San Bartolome, 28
☎ 74 12 55
☎ 929 44 23 14

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR
Morkaiko, 1
☎ 74 12 80

AZPELETA
San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI
Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI
Santa Ana, 12
☎ 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.
Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94



JUAN LUIS MUGERZA

Elgoibar

Erdi aroko agirietan Markina de Yuso zuen izena, gerotxoago Vilamayor de Markina; egun, Elgoibar da elgoibartarren herria (Vega del Campo gazteleraz). Ez da txikia, ez handia. Ez ederra, ez zatarra. Halamoduzkoa kanpotarrentzat, bikaina bertakoontzat eta are ederragoa bertokoa izanik eta kanpoan bazaude.

Ni, egitan, herritik hiru ordu laurdenera egonda, sarri askotan, herriminak jota egoten naiz; zer esango dute erbestean edo eta lau paretan artean urte luze hauetan dauden horiek? Nolako Elgoibar irudikatuko dute? Lehengoa, egunekoa edo eta hamabost urteren buruan ikusiko duguna? Ariketa polita izan zitekeen herriko semei galdetzea nola dakusaten euren, geure herri maitea (euskal presoak eta errefuxiatuak herrira).

Egun, Gipuzkoan finkatua, inoiz Bizkaian. Halaxe zioten Pliniok eta Estrabonek erromatarrek Euskal Herria tribu eta leinutan banatu zutenean. Beraz, erdi bizkaitarrak, erdi gipuzkoarrak. Erdi errealezaleak, erdi atletitarrak.

Txiste kontuetan ere, ezin guri egokitu gipuzkoar peto-peto bati dagozkion txan txak. -Zuek erdi bizkaitarrak zerate. Hau amorrua! Noizbait sionak goratu, noizbait iskanbilak sortu. Gehienetan isildu beharra.

Kokapenari dagokionez ezin hobeto paratua. Donostiatik hirurogeita lau kilometrorra, Bibotik hirurogeira, Gasteiz eta Iruñeatik beste horrenbestera. Iparraldeko zenbait pa-

rajetera joateko urrun samar, baina bestela ederto. Euskadiko hiriburua izan zitekeen, kokapena aintzat hartuz gero, nahiz eta jakin betekizun horren aurrean bere mugak dituela. Ez naiz gure herritxoak faltan edo soberran dituen gora-beherak aipatzen hasiko, ze horrek oso maite duguna desitxuratuko luke eta ez da hori neure asmoa. Gainera, horrelakoetan, zenbat buru hainbat aburu. -Nik, gaztetxe baten falta somatzen juat. Beste batetik: -Ba... nik, lorategiarena.

Horrelako iritziok, iruzkinok herriaren itxurari, nortasunari atxikitutakoak lirakeke baina hizkuntza herriaren arima bada, zein da Elgoibarko herriari, idazten ari natzaizuen honi, egokitu behar zaion hizkera? Nik batue-raz dihardut eta hori ez da gure herriko hizkera. Aitari entzundakoa aipatuz gero hika erabiliko najuan/najonan eta holako

“Zein da Elgoibarko herriari dagokion hizkera?”

idazkietan ez dago horrelakoak tartekatzerik.

Elgoibarko hizkeran dot/det/dut/juat/jonatan..., zein erabili behar? Nagusiei egindako elkarrizketetan, eurak bertako euskara txukun eta dotorez mintzatu arren, demaseko nahaste-borrastea antzematen da, bereziki, aditzetan. Nik, aukera hau aprobetxatu nahi nuke/neukek/n... BARREN aldizkarian Elgoibarko euskarari buruzko ataltxo bat izan dezagun eta bertoko hizkera gal ez dadin, ze orain arte jasotako altxorra galduz gero, erdi fosilizatuta geldituko diren esamoldeak baino ez dira entzungo. -Politza zen “barren”!

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



laburpena: xagu, makila eta errauskine lurrazaleko jendearen artean nahasteko? ahalegi netan dabilta, baina...





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEAK	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegí, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guilló, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Eskerrik asko Morkaikoren partez

Leerro hauen bidez Morkaiko Mendizale Elkartek 1997ko Elgoibarko Itzulua antolatzeke jaso dituen laguntzak eskertu nahi ditu. Laguntza hori eskaini duten denda eta elkarteak ondorengoak dira: Ziarda, Fraile, Landa, Armueta, Bollar, Idarraga, Dori, Aitzbizkar, Patxi, Eroski, Iraola, Xigortze, Altzolakako Urak, Garay, Karakate Elkar-atea, Kalamua Elkaratea eta Elgoibar-ko Udala.

Eskertza hau, era berean, Elgoibarko Itzulian parte hartu duten guztiei luzatu nahi diegu eta datorren urterako animatu, hurrengo urtean ere aurtengo arrakasta errepika dadin.

Morkaiko Mendizale Elkartea

Erasoa

Asti gure lagun maitea, orain urtebete joan zitzaigun. San Lorentzon, berak hainbeste maite zuen txokoan, pago bat eta harri bat jarri genuen oroigarri modura. Bere senide eta lagunak sarri joaten ginen hura ikustera. Zuhaitza sendotzen zihoan, bai eta loratzen ere, eta lotsagabe batek edo batzuek zuhaitz xarmant hura, guretzat suposatzen zuenarekin, zapuztu digute.

Norbaitek zerbait ikusi badu edo informaziorik badauka, jarri harremanetan Astiren lagunekin.

Astiren lagunak

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDERAK

◆ Irakurle batek zera jakin nahi du: **“Egia al da, HBk dioen bezala, 5 pisuko 8 etxebizitza bloke eraikitzeko asmoa dagoela Urruzunon, ia 300 etxe?”**

Jose Mari Oruesagasti Hirigintza buruarekin egon gara eta zera izan da bere erantzuna:

“HBk esan duena hipotesi hutsa da. Ezin da zehaztu zenbat bloke joango diren. **Eusko Jaurlaritzak ez du bidali oraindik Urruzunoko proiektua Hirigintza Batzordera, hortaz, dagoen bakarra zurrumurruak dira.** Momentuz, plenoan arau subsidiarioen aldaketa onartu da. Aldaketa hau beharrezkoa zen Urruzunon protekzio ofizialeko etxebizitzak egiteko”.

KEXAK

◆ Herritar batek bidalitako kexa: “Joan dan zapatuan gure umiak ez zaban ondo lo ein. 3etan esnatu eta kostata lotaratu zen. 9etan negar batian hasi zan **txistularixak** ari zian pasatzen eta. **Gero gailleguak** euron gaitekin. Umiak lo hartu bihar zabala ematen zabanian, **dultzaineruek** esnatu zaben. **Elizako kanpaiek** ere beren partia ein zaben. Ordu erdiko lasaitxasunaren ostian, **Bandiak** dantzan jarri gintxuan. Neri beti gustau izan jata musikia, baina lenguan musikiak domeka eguzkitsu bezain loguretsu bat eskeini zian”.

◆ San Frantzisko kalean, King-Kong-a eta Pilarreko zubia-
ren bitartean bizi den emakume batek zera jakinarazi nahi du: **“Lotsagarria da nola dagoen ibaia belar eta landarez beteta, oihana dirudi.**

Lehenengo pisuan bizi naiz eta leihoak ibai aldera ematen duenez mamorro mordoia sartzen zait etxean. Belarra mozteko eskatuko nioke, mese-
dez, Udalari”.



TXALOAK

◆ “10 urteko bi neska gera eta **Udalari txalo bat** eman nahi diogu autotxokiak, dragoia, tiobibuak eta Disney Park ekarri ditxulako”.

BAI, ESAN?



Mari Jose Zubiaurre
MUSIKESKOLAKO
idazkaria

Inazio Bereziartua musikeskolakoek bi kontzertu eman dituzte ikasturteari agur esateko. Musika, dantza etab. ikastera joaten dira haurrak eta gazteak. Erakunde honen inguruan zertxobait gehiago jakin nahian, **idazkari eta ko-ordinatzaile den Mari Jose Zubiaurreri** hainbat galdera luzatu dizkiogu.

– **Zertarako ematen dituzte ikasleek urte amaierako kontzertuak?** - Kurtsuan zehar egindako lana agertzeko eta talde instrumentalak bultzatzeko. Inazio Bereziartuak duen helburuetariko bat, ikasleek instrumentuak jotzen ikastea baino zerbait gehiago lortzea da: kontzertuen bidez aberastan musikal handiagoa hartzea, alde batetik publikoaren aurrean egoten jakinez, eta bestetik, kideengandik ikasiz.

– **Zenbat ikasle ditu musikeskolak?** - 554 ikasle daude eta instrumentu hauek ikasteko aukera dute: pianoa, akordeoia, bibolina, biola, txeloa, tronpeta, tronpa, tronboia, kitarra, txistua, flauta, klarinetea, oboea, saxofoia eta perkusioa. Aukeratuena kitarra eta pianoa dira.

– **Zenbat talde instrumental ditu musikeskolak?** - Talde egonkorak Akordeoiko bi talde, Kordakoa, Txistukoa, Perkusio taldea eta Gazteen Banda dira.

– **Daukana baino garrantzia gutxiago ematen zaio musikari?** - Garrantzia ematen zaiola uste dugu, eta horren adierazpide da daukagun ikasle kopurua. Musika promozionatzen saiatzen gara ikasleentzat antolatzen ditugun kontzertu pedagogikoen bidez. Eta kanpora begira ere, data jakinetan antolatzen ditugun kontzertuen bidez: Santa Zezilian, Gabonetan eta kurtsu bukaeran. Bestalde, 3. adinekoen Astea eta Gabonetan San Lazaro egoitzan parte hartzen dugu. Gure azken inizatiba herriko ikastetxeetara musika eramatea izan da, haurrei musika saio alaiak eskainiz: instrumentu ezberdinak aurkeztu genituen, Musikolandia balitz bezala, eta haurrek aktiboki parte hartu zuten “kontzertuan”. Walt Disney, Paristik Natorren eta horrelako kantuak jo genituen. Oso esperientzia positiboa izan da eta uste dugu asko gustatu zaiela bai irakasle bai eta irakasleei ere.

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92



OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 20 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Tanbor hots berriak

Trinitate bezperan

Hamar urtez desagertua egon eta gero, duela hiru, 1995ean hain justu, Trinitate jaietako nagusien tanborrada berreskuratu zen. Tanborren burrundaraz jantziko dira bihar gauean, berriz ere, Elgoibarko kaleak. Donostiako martxa, Iriarena, Diana, Polka eta Tatiagoren doinuek jai giroa sortuko dute herritarren artean eta aurten, gainera, Txomin Mujikak idatzitako pieza berria ere izango dugu entzungai, gure geurea izango den "Beti Elgoibar".

Aurten 80 pertsona inguru izango dira tanborradan.

“Baietz, ezetz, egin bihar dogula, aurten seguru, ikusiko duzu...”.

Urtero-urtero koplak berdina errepikatzen zen Elgoibarko koadrila gazte batean Donostiako tanborrada entzun eta gero. Mariaje Iranzok esan digunez, “beti gustau izan jaku asko tanborradia. Txikixa nitzanian akordatzeko naiz zela Ubitarten hasten zan tanborradia eta lelengo doinuek jotzen hasten zianian, bete eitxen nitzan”. Urteak ez dira alferrik pasatu eta gaur egun, bera, Mariaje, antolatzailea ezezik, Tanborren zuzendaria ere bada. Kontua da 1995ean, Donostiako tanbor hotsak igaro eta gero, kuadrilan urteroko gai berbera errepikatu zela ikustean, Mariajek Kultur teknikariarengana

jo zuela, “tanborradia antola-tzeko asmotan gabizela eta euren laguntza eukiko genduan galdetu nion”. Kultur teknikariarengandik baietza jaso eta, lehenengo pausoa, iragarkia jartzea izan zen. Iragarki hura ikusita, gazte asko animatu zen bileretara, tanborradan parte hartzeko prest, “100 pertsona inguru izango ginan lelengo urtian”. Eta tradizioa apurtuz, lehenengo aldiz emakume eta gizonez osatutako nagusien tanborrada ikusi ahal izan genuen Elgoibarko kaleetan 1995ean.

Arropa eta tanborrak alogeran

Dena martxan jartzea ez zen gauza erraza izan. Izan ere, gau bateko pare bat orduko ekitaldi honen atzean lan ordu asko dago eta ardura handia. “Hasieran guk ez zakigun piezak nola jotzen zian. Bandakuekin jarri ginan harremanetan eta euren laguntza izan gendun, pieza bakoitzian noiz jo bihar genduan esateko, ikasi arte. Gero entsaio asko ein genduzen, ahalik eta onduen geratzeko dana, ritmua batez ere”. Merkatu Plazaren goiko aldean elkartu eta ohol batzuen gainean makilaz joaz imajinatu behar zuten tanborra edo barrikarekin ari zirela. “Aurrekontuak ez zaban gehixotarako ematen. Ekipo ixa guztia alkilau ein bihar




gendun, eta zenbat eta egun gehixotarako eskatu, orduan eta karuo urtetzen zan dana". Ia bezperan eskuratu zituzten danborrak eta pare bat entsaio egin zituzten behar bezala, ilarak antolatuta eta oinez.

Arropa eta abesti berriak

Aurten berrikuntza dexente ikusi ahal izango dugu nagusien tanborradan. Mariajek azaldu digunez, arropak erosi egin dituzte. "Beti alkilatzen egotia oso karua urtetzen zan. Gainera, iaz Arrasatekuak tanborrak laga zizkiguten. Udaletxekuekin hitzegin eta tanborrak ez alkilatzetik geratzen zan diruakin, poliki-poliki trajiak itxen juttia pentsatu genduan. Iaz 300.000 pta. geratu zian eta karlisten patruloi barentzat 30 traje enkargau genitxun: txaketa urdina, praka zurixa eta txapela". Legazpin enkarguz eta neurriria egiten dituzte trajeak, "neurrixak hartzera etorri zian eta hiru neurri desberdin ein ditzue, danentzat egoteko". Aurrera begira, tanborrak erosi eta trajeak osatzea da asmoa, egunen batean tanborradarako ekipo osoa lortu arte.

Bigarren nobedadeari dagokionean, berriz, aurten pieza berria estrena-

tuko dute elgoibartarrek. Mariajeren hitzetan, "pentsatu gendun politxa izango zala betiko piezak jotziaz gain, Elgoibarkua izango zan abesti bat eukitzia. Txomin Mujikakin jarri ginan harremanetan eta bera prest azaldu zan". "Beti Elgoibar" izeneko piezak oihartzun berezia izango du aurtengo Trinitate jaietan. Gainera, "gure nahixa letria ere eixia da eta tanborra jotziaz bat, lelua kantatzia". Baina hitzerna aurreragorako utzi dute.



Mariaje Iranzo, tanborradaren antolatzaille eta zuzendaria.

Ohitura mantendu

1995ean 100 pertsona inguruk hartu zuen parte tanborradan. Aurten 70 bat lagun animatu dira, "20 eta 30 urte artekuak. Kasualidadez, beti parte hartu izan daberen bi kuadrilak aurten egun horretan bodia dake". Mariajek argi utzi du, jendeak konpromezu bat hartu behar duela, "ezin gera ibili urtero dudatan, ia nahikua jende animauko dan edo justu-justu ibiliko geran". Helburua, galduta egon den ohitura mantentzea da. Eta ohituraren kontua atera denez, Mariajeri Iruneko alardearen gaiaren inguruan duen iritzia galdetu diogu. Bere ustez, "pertsonek, eta emakumia naizen aldetik, oso gaizki iruditzen jata emakumieri ez lagatzia parte hartzen. Baina herri bakoitzak bere ohitura eta tradiziak dakaz, eta herri-tzarrek erabaki bihar dabe horiekin zer egin. Gehienguak erabaki biharko dau".

Tanborren zuzendaria, tanborrak, Musika Banda, barriken zuzendaria, barriak eta sukaldariak. Iltaran, batzuk besteentzat aterako dira guztiak. Aparteko giroa jartzen saiatuko dira neska-mutil hauek. Eta ziur lortu ere lortuko dutela!

Txomin Mujika: "Ordenadorian bidez ein dot tanborradarako musikia"

- **Mariaje Iranzok deitu zizun musika egiteko eskatuz.** - Bai. Gabonetan etorri jatan esanaz zela beste herri batzutan, Azkoitxian, Zumaian, Deban eta Bergaran ohituria zuan bertako piezak jotzeko tanborradan. Elgoibarren beti Donostiako martxak jo izan dia eta herrirako zeozer eitxeko eskatu zian. Eingo niola zeozer esan nion eta gero eurak trankil entzun eta erabakitzeke.

- **Gustatu omen zitzaizen.** - Bai. Zapatuan, Nagusixen Tanborradan joko da lelengo aldiz "Beti Elgoibar".

- **Zaila egin al zitzaizun?** - Leheno ere Bergarako tanborradiantzat eta Zumaierako ein izan ditzut tanborradarako piezak eta bestelakuak. Nik garbi nakan batetik, euskaldun tokia euki bihar zabala eta bestetik, tanbo-

rrak laguntzeko aproposa izan bihar zala. Hortik aurrera, melodixia bururatu bihar jatzu eta gero, poliki-poliki, bandarako egokitxu bihar da, instrumentau edo armonizau ein bihar da.

- **26 instrumenturentzat egokitu duzu, ez?** - Bai, Elgoibarko Bandarako pentsauta dao.


- **Zein iraupen du?** - 3 minutu eta erdi inguru. Pieza alaixa da.

- **Ordenadore bidez konposatu duzu, Txomin.** - Bai. Nik beti pianuan laguntasunakin ein izan ditzut konposiziua. Oin dala hiru bat urte deskubrimiento demasa izan zan ordenadoria. Jendiak pentsatzen dau ordenadoriak dana eitxen dabala baina ez da hola, zuk esandakua eitxen dau, zuk zeozer gaizki eitxen badozu, jai dao. Ordenadoria laguntasuna da, baina egilia zuk izaten jarraitzen dozu. Tanborradarako musikia ere ordenadorian bidez ein naban.


- **Musika eginda dago. Hitzak noizko?** - Bergarako soziedade bateko himnuan nik musikia ein naban eta letria Aitzol Arriolak, Bandan nerekin bonbardinoa jotzen dabanak. Oin ere,

Elgoibarko tanborradarako Aitzolek eingo dau letria.

- **Urduri biharko?** - Ilusiuakin. Ia jendiari gustatzen jakon. Ni oso gustura nao, ze uste dot oin tanborradan dabizenak benetan ondo ari diazela, serixuak, arduratsuak eta, era berian, umoretsuak ikusten jakue. Hola segitxuta, maila altura ailegauko dia.



Igarri al da zue- nean ekonomiaren hazkundera?



IÑAKI BERISTAIN
38 urte, montatzailea

Igarri dudan bakarra karti-
lan daukadan diruarengatik
interes bajuagoak ematen
didatela da. Hobekuntzarik
behintzat ez da igarri.



**ARANTXA
NARBARTE**

48 urte, zaintzailea

Ez, hazkundera hori ez da
oraindik erosketa-boltsara
heldu. Esaten dute kredi-
tuak eskatzeko momentu
ona dela baina eguneroko
bizitzan ez da ezer igarri.




TEODORA PEREZ
59 urte, etxeakoandrea

Senarrak daramatza banku-
ko kontuak, nik ez dut ezer
ulertzen horri buruz. Zorio-
nez gurean ez da gora-behe-
ra handirik izaten diruari
dagokionean.




NEKANE ITURBE
57 urte, dendaria

Uste det makroekonomia
hori ez dela iritsi oraindik
jende xehearengana. Gauza
nahiko zaila dao, kontsu-
moa igotzeko jendeak lan
segurua behar du eta lanik
ez dago.



**ALEJANDRO
PASCUAL**
65 urte, jubilatua

Ekonomia aberatsentzat ba-
karririk hobetzen da. Gaine-
ra, orain, gure aurrezkie-
ngatik interes gutxiago ema-
ten digute... Pobreen kasuan
ez dago.



ekonomia ez da hobetzen.
MANUEL URAIN
59 urte, pinu moztzailea

Gurian ez. Krediturik ez da-
kagu baina gure etxian asko
gastau eta irabazi gitxi ei-
txen da. Hobekuntzarik ez
dou antzeman inon.

HEMENDIK

BODEGA

AFARI MERKEAK
Gure berezitasunak:

- Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta

*Ondo pasa
Trinitateak!*

Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00 ELGOIBAR

Ametza

KAFETEGIA

Ondo pasa
Trinitateak!

San Inazio, 2
☎ 74 27 22 ELGOIBAR

KATIUSKA

taberna

Trinitate
onak

Rosario, 28 Tel: 74 00 38

ISPILUA- DRI DEGIRA



*Maria
Picon*

FERPI MODAS
erropadendakoa

- **Moda-modako kolorea?** - Marroi eta krudoak.
- **Zuri hobekien ematen dizuna?** - Marroi eta krudoak.
- **Sekula jantziko ez zenukeena?**
 - Kolore pistatxo, laranja edo lila.
- **Arroparik erosoena?** - Alkandora eta praka zabalak.
- **Behar-beharrezko osagarria?** - Gerrikoa.
- **Udarari begira dietarik?** - Horretan nabil orain ere.
- **Bikinia ala bainujantzia?**
 - Gaur egun bainujantzia, ezkutatzeko gehiago dago eta.
- **Sekula jantzi duzu lentejuela soinekorik?** - Bai, ezkontza eta ospakizun berezietan. Gustatzen zaizkit.
- **Zer esan nahi du Ferpi-k?**
 - Fernando, senarraren izena, eta Pi nire abizena, Picon.
- **Moda-modan dagoen ohitura?** - Mendira joatea.
- **Zein aldizkari irakurtzen duzu?**
 - Eskulan eta altzariei buruzkoak.
- **Zein albistez beteko zenuke eskaparatea?** - Pakeari buruzkoak.
- **Zein balore saldu nahi zenuke kilotan?**
 - Umiltasuna eta elkartasuna.
- **Maitasuna eros daiteke?**
 - Ez, barrutik ateratzen den sentimendua da.
- **Noren bizitza egin nahi zenuke zure egun batez?**
 - Bizitza lasaia duen edonorena.
- **Umetan zer izan nahi zenuen?** - Tipikoa, printzesa edo.
- **Eguneko momenturik onena?** - Gaua, familiarekin.



UDALEKU ITXIAK

EKAINAREN 30etik - UZTAILAREN 5era

LESAKAN

5. MAILAKOENTZAT

Irteera: ekainaren 30ean goizeko 10:30etan Plaza Handian.

Itzulera: uztailaren 5ean eguerdiko 13:00etan Plaza Handian.

Zer: Lesaka eta inguruak ezagutu, Sarako kobazuloak bisitatu, mendi irteerak, Bertizeko Parke Naturalera irteera,...

Prezioa: 10.000 pta.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: ekainaren 5a

ELGOIBARKO IZARRA Ubitarte 4, behea

© 74 16 26 (M^a Jesus)



ATXUTXIAMAIIKA Begirale taldea · ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

LAGUNTZAILEAK: ELGOIBARKO UDALA , EUSKO JAURLARITZA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

● Gurutze

Gorriaren azalpenak dirua batzeko kanpaina dela eta

Dirua batzeko kanpaina baten inguruan Elgoibarko Gurutze Gorriko egoitzan jaso dituzten telefono dei eta zalantzak direla eta, erakunde honek prentsa ohar bat kaleratu du. Bertan Elgoibarko Gurutze Gorriak ez duela oraingo inongo kanpainarik egin adierazten dute. Era berean “laister batean urrearen zozketarako loteria” saltzen hasiko direla aditzera ematen dute. Honekin batera “bazkideen kaptazio kanpainari ekingo diogu eta lanean arituko diren bolondres guztiak behar bezala identifikaturik egongo dira, Milagros Picaza, Gurutze Gorriko lehendakariaren gutun bat eta guzti”. Bestetik, herriarrek eskainitako laguntza eskertu eta “laguntzen jarrai dezatela” eskatu nahi diete. Edozein zalantza argitzeko interesatuek 74 38 64ra dei dezakete.

● Arantzazura erromesaldia

Datorren ekainaren 1erako erromesaldia antolatu da Elgoibartik Arantzazura. Goizeko 9:30etan Sigma-tik aterako da autobusa. 11etan Arantzazuko basilikan penitentzia komunitarioa izango da eta 12etan meza nagusia. Jarraian bazkaria izango dute Ospederian eta arratsaldean bideo emankizuna eta azken agurra. Itzulera arratsaldeko 6etarako egingo dute. Irteeraren zenbatekoa 2.500 pta.koa da, autobusa eta bazkaria barne. Izena emateko Murua Gozotegira edo Santa Ana kaleko estankora zuzendu.

Galiziar eta euskal folklorea elkarren eskutik Galiziarren jaietan

Galizia Etxeak antolatutako jaiei barruan, pasa den igande goizean, euskal eta galiziar folkloreak bat egin zuten Plaza Handian izan zen dantza saioan. Harritz Dantzari taldeak eta Orenseko “Foula” taldeak meza nagusian parte hartu zuten lehenik, eta ondoren, Plaza Handian egin zuten dantza. Saioa amaitu ondoren, plakak eta opariak elkartrukatu zituzten bi dantza taldeen eta herriko agintarien artean. Foula taldekoek Galiziako dantzak eta elgoibartarrek “Brokel dantza” saioa eskaini zuten.



Elgoibarren jarri dute Deba Beherako ambulanzia medikalizatua

Osakidetzako larrialdietarako zerbitzutik jakinarazi digutenez, Gipuzkoan dauden hiru ambulanziaz medikalizatuetatik batetik, Elgoibarren du egoitza. Bat Donostian dago, beste bat Tolosan eta hirugarrena Elgoibarren, Deba Beheko, kostaldeko eta Urola bailarako larrialdiei erantzuna emateko asmoarekin. Zerbitzu hau martxan jartzeko, “Ambulancias Gipuzkoa” enpresarekin hitzarmen bat egin du Osakidetzak.

Maiatzaren 1ean ekarri zuten aipatu ambulanziaz Elgoibarrera. Behin-betiko egoitza autopista irteeran izango du, “bertatik akzesozuzena baitauka errepide guztietara, bai Deba, Eibar edo eta Azkoitiara”.

Ospitale mugikorra

Anbulanzia medikalizatu batek, ohiko ambulanziaz batek dituen balibideez gain, “mediku bat, ATS bat eta tekniko bat izaten ditu”. Giza baliabideez aparte, baliabide material bereziak ere

baditu. “Istripu batean, politraumatismoak berehala tratatzeko ahalmena dauka bai eta bihotzeko bat-bateko eten baten aurrean ere, ospitale bateko larrialdietan jasoko litzatekeen asistentzia-erren parekoa emateko ere.




C.D. Elgoibarko himnoari omenaldia

Joan den domeka eguerdian Club Deportivo Elgoibar elkarteko himnoari omenaldia egin zitzaion Musika Bandak Herriko Antzokian eman zuen kontzertuaren bueltan. 1947an Julio Pérez Cortésekin egin zuen himnoaren musika eta Isaac Azpiatzuk letra jarri zion. Club Deportiboko lehendakaria den Jose Ramon Zabalak plaka bana eman zien Pérez Cortés eta Azpiatzuren senitartekoei eta, azkenik, beste plaka bat Jose Antonio Osoro Musika Bandako zuzendariari. Herriko Antzokira elgoibartar mordoska hurreratu zen kontzertua eta omenaldia ikusteko asmotan. Amaieran, himnoa abesteko aukera izan zuten, Musika Bandak obra horren musika jotzen zuen bitartean.



Urrezko lau domina Gipuzkoako Txapelketan Ibai Klubekoentzat

Joan den larunbaten Eskolarteko Judo Txapelketako finalak jokatu ziren Donostian. Probintziako lau finalistek hartu zuten parte bertan, Ibai Klubetik 10 judokak, hain zuzen. Urrezko lau domina lortu zituzten, hortaz, Gipuzkoako lau txapelak ditugu Elgoibarren. Maialen Mora, Zuriñe Polo, Aitor Gabilondo eta Xabier Gonzalez dira. Bronzetzko domina Maria Idiakenez eta Esther Idiakenez ahizpek lortu zuten. Hurrengo topaketa ekainaren lehen izango da Euskadiko Infantil mailako Txapelketan. Ziurrenik Xabi Gonzalez eta Esther Idiakenezek hartuko dute parte.



Gurean Bai ondo ulertzeko hitzaldia

Urte t'erdi da 52 erakundek Gurean Bai Hitzarmena sinatu zutela. Orain artean izandako esperientzia eta praktika, teoriarekin uztartzeko helburuarekin, Elgoibarko Izarrak bi hitzaldi antolatu ditu. Hitzaldiak, hitzarmena sinatu zuten entitateetako zuzendariari eta euskara arduraduneari zuzenduta daude, eta helburu garrantzitsuena Gurean Bai-rekin zer lortu nahi den argi eta garbi azaltzea da. Antolatzaileen esanetan, "lehenengo saioan euskararen normalizazioa zer den azaltzen dugu, eta bigarrenean Gurean Bai-k normalizazioari zertan laguntzen dion". Maiatzaren 13an hasi ziren hitzaldiak eta 19 entitateko ordezkariak ari dira parte hartzen.



azkue

San Lorentzoko emakumeen bazkaria

San Lorentzoko emakumeak lagunarteko bazkari baten bueltan elkartu ziren joan den domeka eguerdian. 111 emakume izan ziren guztira. Auzoko nagusienari, 88 urte dituen Antxola baserriko Teodora Arakistain-i, omenalditxoa egin zioten. Lora sorta eta bonboiak oparitu zituzten, bai eta Begoña Juaristiri ere, bazkaria egiteko frontoia lagatzeagatik.


● Buzeo ikastaroa

Urbizi urazpiko taldeak, Udal Patronatua-rekin batera, kirol buzeatzaile tituluak (bi izarrekoa eta izar bakarrekoa) ateratzeko ikastaroak antolatu ditu. Ekainaren lehen hamabostaldian izango dira ikastaroak, arratsaldeko 7etatik 9ak arte astegunetan eta goizetan jaiegunetan. Izen-ematearen zenbatekoa 40.000 pta.koa da. Argibiderik nahi izanez gero, Kiroldegira deitu (74 44 15). Taldeak mugatuak izango dira.

● Milagro herrira txangoa

Jubilatuena Etxeak Milagro herrira txangoa antolatu du ekainaren 25erako. Bertan bazkaria izango dute eta arratsaldean dantzaldia diskotean. Prezioaren zenbatekoa 3.000 pta.koa da. Izena emateko Jubilatuen Etxetik pasatu goizetan.

aitor



Hiru partehartzaile besterik ez Haurren I. Arrantza Txapelketan

La Unión elkarteak antolatutako I. Haurren Arrantza Txapelketa joan den igande goizean izan zen San Lorentzo errekan. Hiru partehartzaile bakarrik aurkeztu ziren. Oscar Feijoo izan zen txapelketako irabazlea; bi amurraingartu zituen, guztira 840 gr.ko pisua lortu zuelarik. Bigarrena Ismael Galeano izan zen, amurraingartu bakar batekin (313 gr.). Azkenik, Asier Ajuriagerra sailkatu zen. Honek ere amurraingartu bakarra harapatu zuen, 220 gr.koa.

LABen manifestazioa lan erreformaren aurka

Elgoibarko LAB sindikatuak manifestazioa egin zuen joan den ostiralean "sindikatuak eta patronalak hitzartutako lan erreforma berriaren kontra". Manifestariak banketxeen aurrealdean kokatuta, lan fijoaren aldeko konsignak eta banketxeen aurkakoak oihukatu zituzten. Manifestazioa amaitzeko, CCOOen egoitzaren aurrera abiatu ziren, "sindikatu honek erreformari emandako onespena salatu asmoz".



IRAKASLE ESKOLA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epa zabalik dago honako karrera hauetan:

●MAGISTERITZA:

Espezialitateak: HAUR HEZKUNTZA
HEZKUNTZA BEREZIA
ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

●**HUMANITATEAK-ENPRESA** lizenziatura: Lizenziatura honek profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakundeentzako kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erantzuteko prestatuak.

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA - 20540 ESKORATZA
☎ (943) 71 41 57

ARMUETA

HARATEGI
ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

ETXERAINOKO ZERBITZUA

San Bartolome, 16
Tel: 74 06 40
ELGOIBAR



BILBAO EXPRESS Bidaiak, Elgoibarko bihotzean dagoeneko

Herritarrek eta enpresek aspaldi eskatzen zuten
zerbitzua eskainiko du

Orain gutxi, lehen bidaia agenziaren irekiera notizia izan da gure herrian. Herriko lekurik esanguratsuenen artean dago kokatua, Foruen Plazan, San Bartolome kalearen hasieran, hain zuzen.

Duela 11 urte jaio zen Bilbao Express Bidaiak Bizkaiko hiriburuan. Bidaien sektorean aspalditik lanean diharduten bi profesional dira fundatzaileak, Jose Mari Acebedo eta Jose Luis Sádaba, gaur egun ere negozioaren buru direnak.

Konpainiaren zuzendariarekin hitz egin dugu, Jose Luisekin, eta hara hona luzatu digun lehen galdera:

- Elgoibar baino herri garrantzitsuagoak egonik, zer dela eta etorri zarete Elgoibarrera?

- Lagun ezin hobeak daukazgu Elgoibarren. Izan ere, Guillermo Gorostizak, lan-aseguru eta gestore adiministratiboa denak, bidaia agentzia baten falta igartzu zuela aipatu zigun. Bere berezko behin eta berriro komentatzen zioten



BILBAO EXPRESS eko langileak: Ane eta Pilar

bidaia agentzia baten zerbitzua eskaintzeko. Elgoibarrek 11.000 biztanle ditu eta turismoaz gozatzeko eta atsedena hartzeko beharra elgoibartarren arteko lehentasunetan dago. Askotan inguruko herrietara jo behar izaten zuten behar hori asetzeko. Ikaragarri gustatu zitzaigun ideia eta gaur egun egia bihurtu da.

- Zein baliabide dituzue gure herriko biztanle eta enpresen beharrei erantzuteko?

- Gure bulegoak baliabide informatiko eta erretserba sistemarik aurreratuenak ditu, SAVIA delakoa, adibidez. Herrian jaiotako langileak ditugu, Ane Gurrutxaga eta Pilar Herrero, azken hau Donostian jaiotakoa izan arren, elgoibartar batekin ezkondu dago eta aspaldi bizi da Elgoibarren. Pilarrek 20 urteko esperientzia dauka lanbide honetan eta biak dira euskaldunak.

- Beste bidaia agentzien iragarkietan,

prentsan, irratietan zein telebistan ikusten ditugun leku eta prezio erakargarriak eskaini ditzake Bilbao Express-ek?

- Maiorista ezagunenekin hitzarmenak ditugu: Mundicolor, Travelplan, Soltour, Club Vacaciones, Iberojet, Turavia, Politours, Condor Vacaciones, Kuoni-Giras, Rhodasol, Oskarbi etab. Hau horrela izanik zera esan dezaket: Costa del Sol-etik Benodorm-era, Salou eta Galizia barne, Italiatik Londres-era, Praga, Estambul, Marruecos, Tunez edo Grecia barne; Caribetik Thailandiara, Cuba zein Santa Domingo, Bali edo Seychelles edo Maldiva irletara joatea posible dela Bilbao Express-i esker, Foruen plazatik baino haruntzago joan gabe.

- Beste agentziek ere badituzten sistema informatiko eta gertuko kokapenaz aparte, zer beste eskaini dezakezue?

- Hegazkin eta hotel konpainia nagusienekin hitzarmenak ditugu. Fundatzaileek 30 urteko gora-erentzia dute lanbide honetan. Bilboko bulegoa Lufthansa City Center konpainia alemaniarraren ordezkaria da; Europako lehen hegazkin konpainiaren baliabideak erabiltzeko aukera daukagula esan nahi du honek. Azkenik, feria industrialetan parte hartzeko programa bat ere badugu. Laister batean programa honen berri emango dugu, jakin badakigulako enpresa askok dutela interes.

- Azkenik, zer espero duzue Elgoibarko bulegoaren irekieraren ostean?

- Satisfazio ugari, lagun mordoska egingo baitugu. Elkarbizitzen ikasteko modu ezin egokiagoa dira bidaiak, eta pertsonak elkarbizitzari esker ikasten dute elkar maitatzen. Bidaia egin baino lehenagokoa bai eta ondorengo guztia ere konpartitzen du bidaia-agentzietan bezeroarekin. Bizi-kalitatea delako horretan oso errututa dauden zerbaitek dira bidaiak.

HAU GUZTIAREKIN GATOZ!!!

**ORAIN, astebete
leku hauetan:**

MALLORCA

Dali hotela - 3★PE
40.900 pta.

Bidaialagunak:
%50eko beherapena

GRAN CANARIA HEGOALDEA

Rio Sol hotela - 3★PE
64.900 pta.

LANZAROTE (ezkongaiantzat)

Beatriz hotela - 4★PE
72.600 pta.

LANZAROTE (45 urtetik gorakoentzat)

Lancelot hotela - 3★PO
61.100 pta.

LANZAROTE - TENERIFE (2 aste)

Goya/Miramar hotela -
3★PO
91.900 pta.

LONDRES (3 gau)

Tavistock H.- 1 go maila OG
57.600 pta.

Royal National hotela -
1 go maila OG
58.000 pta.

ERROMA (3 gau)

Tempio hotela - 3★OG
56.900 pta.

Napoleon hotela - 4★OG
67.500 pta.

ESTANBUL (astebete)

Hotelak - 3★AG
65.500 pta.

CARTAGENA DE INDIAS (astebete)

Capilla hotela - 4★AG
123.900 pta.

*PE: pentsio erdia

*PO: pentsio osoa

*OG: ostatua + gosaria

ETA HAUZEA GAIN:

Thailandia, Egipto,
Cancun, Santo Domingo,
New York, Txina, Kalifornia,
Brasil, Argentina, Kanada...

**Dudarik gabe,
hemendik aurrera,
zatoz gure bulegora:**



Foruen Plaza, 3 Elgoibar
Tel: 74 39 12

Gaixoentzat Eguneko Zentroa jarriko da martxan

Eguneko zentroa gaixo dauden hirugarren adineko pertsoneri zuzendua dago. Udaletxeko Ongizate Sailak datorren urteari begira aipatu zentrua martxan jartzeko asmoa du. Horretarako 100 m².ko egoitza egokituko dute Jubilatuen Etxean. Guztira 8 milioi inguruko aurrekontua du proiektuak

Goizeko 10ak eta arratsaldeko 6ak bitartean, Eguneko Zentroan pasatuko lukete eguna gaixoeak. Tarte horretan, begirale espezializatuek garbitu, pertsonaren gaitasunaren araberako ekintzak antolatu eta bazkaria eta askaria emateaz arduratuko lirateke. Helburua, Belen Elorza Ongizate saileko lehendakariak esan digunez, “bikoitza da. Batetik, gaixoen familia liberatu nahi dugu, egun osoa gaixoen gainean egon beharrean, eurentzat ere denbora izan dezaten eta, bide batez, gaixo hauek erresidentziara eramateko denbora atzeratuz. Era berean, gaixoak behar bezala atendituak egongo dira, momentu bakoitzean ekintza desberdinak eginez eta hori guztia giro on batean”.



Obrak aurten egin eta datorren urtean jarri nahi da martxan Eguneko Zentroa.

100 m²ko egoitza

Jubilatuena Etxeko 100 m² egokitu-ko dira Eguneko Zentrua martxan jartzeko. Gutxi gora-behera 12 pertsonarentzako lekua izango da. Obra zibilak 4.820.535 pta.ko kostua izango du eta Aldundiak %63 jarriko du, 3.133.348 pta. inguru, eta gainontzeko guztia Udalaren esku geratuko da. Obra ezezik, altzariekin ere jantzi beharko da egoitza eta honako hauen gastua

3.380.432 pta.koa da.

Aurrera begira, martxan jartzen denean, gaixo bakoitzak hileko zenbateko bat ordaindu beharko du: ezinduek, batzaz beste, 34.221 pta. eta euren buruz baliatzeko gai direnek 49.749 pta. Kontuan izan behar da kostu osoaren zenbateko bat Aldundiak jartzen duela eta gaur egun laguntza gehiago dago ezinduentzat, horregatik merkeago aterako zaie horiei.

HBk Euskal Kontuen Epaitegiaren informazioari buruzko boletina banatu du etxez etxe

Joan den astelehen HBk komunikabideen aurrean azaldu zuenez, Euskal Kontuen Epaitegiaren txostenean Elgoibarko Udalarari buruz azaldutako informazioa buzoneatu du. Pello Mendizabalen hitzetan, “gure nahia, herritarrak jakinaren gainean egotea da. Zein irregularitate eta nola egin zen ezagutu dezaten eta, horrekin batera, erantzukizunak eskatu nahi ditugu”. Asmo horren haritik, HB eta IU-EBk pleno berezia eskatu dute. Oraindik ez dute erantzunik jaso baina litekeena da ez onartzea, izan ere, pleno berezia zinegotzi guztien herenak eskatu behar du eta HB eta IUko zinegotziak ez dira gutxieneko kopurura iristen.

Bozeramalean batzordean gaia eztabaidatu zen eta auditoria batek azterketaren bat ere egin du baina HBkoen usitez ez da nahikoa, “Eak komisioetan hitzegiteko gaia zela adierazi zuen baina momentuz gauzak berdin dira, eta alkateak berak ere erantzukizunik izana ukatu egin du”. Pellok esandakoaren arabera, “PNVren gestioa beti izan da iluna eta ezkutukoa”.



artxibokoa

Mendizabalek pleno berezia eskatu zuen gai honi buruz hitzegiteko.

KiliBARRREN

Maiatzaren 23a
40. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



H

ilabete honetako agazki zaharra **Maritxu Ula-
ziak** laga digu. Trinitate ermitako banku bate-
an eserita agertzen dira argazkikoak. Maritxuk
esan digunez, 1968. urtean aterata dago, Trini-
tate Txiki egunean. Hona hemen neska-mutil
hauen izen-abizenak:

Ezkerretik hasita: **Jose Mari Iriondo, Jua-
nita Ulazia, Maritere Lazarobaster, Marite-
re Iriondo, Maritxu Ulazia, Maxi Iturria** eta
Txomin Ulazia.

Trinitateak:

Tradizio handiko jaiak

Trinitate jaiak beti izan dute xarma berezi bat Mendaron. Mendarozabal auzoan ospatzen diren jai hauek tradizio handikoak direla ezin da ukatu. Ia bostehun urte dituen Trinitate ermitaren inguruan urtero elkartzen dira mendarotarrak festa giroan. Astebukaera honetan izango dugu aukera jai alai hauez disfrutatzeko.

1 980 urte inguruan Trinitate ermitako teilatua jausi egin zen eta herritar askok hartu zuen parte konponketetan. “eliza barrutik txapli-guak eta guzti botatzen genitxun eta erabaki genduan nola edo hala konpondu ein bihar gendula”. Gaur egun, emakume talde bat Trinitate jaien aurretik jo eta ke aritzen da ingurua behar bezala garbitu eta txukuntzen, jaiak ahalik eta ederrenak izan daitezzen.

Aspalditik antolatzaile lanetan dabilen Agustin Lazarobasterrek esan digunez, jaiak ez dira urtez urte gehiegi aldatu. Agustinek ondo gogoratzen du nola ospatzen zituzten jaiak bera umea zenean, “taberneruak kaltetik etortzen zian zestokada bat bokadilo eta garrafoi bat ardo hartuta. Legatz frijitua etxetik ekartzen zan eta soinujuoliak alaitzen zaban girua”. Orain dela 40 urte inguru gazte talde bat elkartu eta aurrekoei txanda har-

tuz, antolatze lanetan hasi ziren, gaur arte. Bi hilabete aurretik hasten dira jaiak antolatzen, “lau bat afari eitzen ditzugu jaixak prestatzeko, hitzegin eta dauden arazuez eztabaidatzeko”.

Trinitate egunean meza, txistularien kalejira, Ospas eta Sabin trikitalarien emanaldia eta herri kirolak izango dira. Ia urtero ekintza berdinak mantentzen dira, “aurten aldatuko dan gauza bakarra, meza nagusia Sotero Arakistain zanan omenez izango dala da”.

Umeen bertso saioa

Trinitate Txiki egunean Ikastolako haurrek bertso saioa eskainiko dute. Agustinek kontatu digunez, “lehen ez zan hori eitzen baina irakasliek erabaki zebe egun hori jai hartzia eta holaxe hasi ginan umien bertso saioekin. Jende asko hurreratzen da entzuztera”.

Trinitate Txiki egunean baita ere,

500 urte inguru dituen Trinitate ermitaren inguruan ospatzen dira jaiak.





Herri kirolak eta erromeria urtero errepikatzen dira.

azken 30 urteetan Laja eta Landakanda trikitilarien eskutik erromeria izaten da eguerdian eta gauean. Dirudienez garai batean soinu-joleren bat etortzen zen, “Osintxuko Markos. Baina aspaldixan Laja eta Landakanda ekar-tzen ditxugu gustura”.

Makailo jana

Gaueko erromeriaren aurretik antolatzaile guztiek makailo jana egiten dute Aizpe tabernan, “lehen Mateonian edo Txikitxonian eitzen zan, baina oin Aizpen. Gainera, aurtan antolatzaileen andrak ere jun nahi dabe afarira eta hor

gabiz, burrukan”.

Antolatzaileek ezezik, kaletarrek ere egiten dituzte afariak. Trinitate kalekoek, esaterako, Arboleta tabernan izan ohi dute.

Diru kontuak

Diru kontuetan ez omen dago arazo gehiegi, “parra eitzen dou. Udalak 110.000 pta. ematen dizkigu eta gaintzekua barratik etartzen dou. Daneri pagauta parra geratzen gera”.

Agustinek esan digunez, “iaz gaztiak laguntzen ibili zian eta ikurrina altxa-tzen lagundu zigiten. Ia aurtan ere animatzen dian”

Anto? nio Trinitate jaietako antolatzailea

Trinitate jaixak ez eitxia pena haundixa izango zan

- Noiztik antolatzaile lanetan?

- Orain dala 42 urtetik. Urte batzutan gehixo beste batzutan baino, baina urtero. Gainera, elizia apurtu zan arte gauza sinpliauak eitzen zian baina konpontzia erabaki zanetik aurrera inoiz baino indar haundixauakin gabiz.

- Lehengo Trinitateak ala oraingoak?

- Bixak. Gu hasi geranezkeru berdin-berdinak dia lehenguak eta oinguak. Egitaraua ez da ezer haundirik aldatu, pentsa Laja eta Landakanda duela 30 urtetik etortzen diala.

- Zein da gustuko duzun momentua?

- Jaixak bi hilabete lehenao hasten gera preparatzen eta gehixen gustatzen jatana hori da, aurrez preparatzen ibiltzia. Afarixak eitzen ditxugu dana pentsatu eta antolatzeko.

- Nolatan dute Trinitate jaiek Mendaron hainbesterainoko tradizio eta

harrera ona?


- Jai hau beti izan da sagraua mendarotarrentzat. Ni umia nintzanean baserritarrek etortzen zian laguntzera, auzolanian. Herrixak asko lagundu dau eta jendiak asko maitxe ditxu jai hauek.

Gainera, esaten dabe aspaldi Mendaron ferixia eitzen zala eta gero elgoibartarrek eraman zabela.

Elgoibarren ez dao ez Trinitate elizarik, ez santurik eta ez estanparik. Hemengo jaixa hartu zebe eta eurek zebebratzen dabe.

- Zer suposatzen dute zuretzat jai hauek?

- Ilusio haundixa ematen didate. Neretzat Trinitate jaixa Mendarozabalen ez eitxia pena haundixa izango zan. Mendarora etortzen danak badaki zer aurkituko duen eta astelehen gaueko erromeria ez da toki askotan eitzen. Jendia, nahiz eta hurrengo egunian lan ein, hala ere erromerixara juten da.



❖ Mendaroko aiton-amonentzat

- Hi, akordatzen haiz gure gazte denboran...
- Bai neska, baina ohiturak zeharo aldatu ditun, eta galdu ere bai.
- Ba, entzun jonat Udalak kontu zaharrak berreskuratzeko asmoa daukala Mendaroko istorioen bilketa bat egiteko eta gure laguntza behar omen jone.
- Hi, ba nik ahaztuta jaitxunat txikitako kontu gehixenak, baina danon artean egingo jonau zeozer.
- Bai, animatu egingo gaitxun dakiguna kontatzera. Pena den aintzinako istorioak gurekin batera galteza. Herriarena den aberastasun hau ez jonau galdu behar.
- Gainera, kartetako kuadrilakoe-kin komentatuko jonau. Harek ere kontu mordo bat jakiñe.
- Ene... guk egin behar jaitxunau barriak aintzinako kontuekin.
- Bai, eta zer egin behar den dakiguna kontatzeko?
- Ba...., uztailean zehar gazte talde bat ipini behar omen jone ahozko istorioak jasotzeko.
- A, oso ondo. Jasoko jonau informazio gehiago.

❖ Dantzari Txiki eguna

Aurtengo Dantzari Txiki eguna ekainaren 22an, igandea, izango da Mendaroko Gazteak dantza taldeak antolatua Udalaren laguntzaz. Mendaroko taldeaz gain, beste hiru talde ere izango ditugu gure artean: Azkoitia, Mutriku eta Ermua. Guztira 100 dantzari inguru elkartuko dira. Haur guztiei bazkaria emateko jendearen laguntza beharrezkoa da eta prest azaltzen diren guztiek izena eman dezakete ekainaren 12a baino lehen Sastrerria, Leku-Ona taberna eta Maiora harategian.

Loiola jokalaria omenaldia

Kilimoiko jokalariek denboraldia amaitzen zutela eta afaria izan zuten Aizpen joan den larunbatean. Afaria berezia izan zen, Fernando Loiola jokalaria omenaldia egin baitzioten. Fernando azken 20 urteotan Kilimoiko jokalaria izan da eta aurrerantzean ere talde honekin ja-

rraituko du, jokalaria bezala ez bada ere, zuzendaritzari lagunduz. Kilimoiko jokalariek Loiolaren aurpegia zerman kamisetak jantzi zituzten afarian eta Fernandori oroigarri bat eman zioten. Afaria eta omenaldia ezin hobe bukatu ziren Loiolaren bertso hunkigarriekin.



Mikel Tarragual eta Iban Zubiaurre Gipuzkoako Sub 14 selekzioan

Mikel Tarragual eta Iban Zubiaurre mendarotarrek Gipuzkoako futbol selekzioarekin jokatu zuten joan den igandean. Partida Frantziako Sabres herrian izan zen eta Gipuzkoak Akitaniako selekzioaren aurka jokatu zuen, 2-2 emaitzaz amaitu zelarik. Ibanek Errealean jokatzen du eta Mikel Debako Amakak Bat taldeko jokalaria da.



*Margarita eta Francisco senar-emaztea madrildarra da. Zilarrezko eztaiak egin zituztenean etorri ziren lehen aldiz Euskal Herrira. Ordutik hona sarri itzuli dira, gehienbat euren alaba elgoibartar batenekin eskoladuta dagoelako, Ion Rementeriarekin, eta honen guraso eta familia bisitatze-
ra etortzen dira noizean behin. Joan den astebukarran izan genituen gure artean eta eurekin hitz batzuk egiteko aprobetxatu dugu.*

MARGARITA MARTIN FRANCISCO DOMINGUEZ

”Madrilera Euskal Herritik iristen zaigun guztia txarra da”

– Sarri etortzen zarete. Gustukoa al duzue Euskal Herria?

- Lehenengo aldiz zilarrezko eztaiak egin genituztenean etorri ginen. Gure asmoa Donostiara etortzen zen baina tokirik ez eta Zarautzen hartu genuen hotela. Asko gustatu zitzaigun Zarautz, toki eder eta lasaia iruditu zitzaigun. Donostia ere, aldizkari eta telebistan ikusi bezalakoa da, izugarri polita. Gauzez Kontxatik eman genuen pasiarra bat, bizitzako ederrenetarikoa izan zela esan dezakegu.

– Eta Elgoibar?

- Tira. Ezin esan herri polita denik, baina mendiz inguratuta egoteak ikutu berezi eta polita ematen dio. Alde horretatik herri polita eta lasaia. Madriletik hona etortzea oso erlaxantea da,

deskonektatzeko oso ondo etortzen zaigu.

– Txikiteoa...

- Hori bai gustatzen zai-gula! Tabernaz taberna joan, Marianitoak hartu... Ohitura polita da eta oso gustura ibiltzen gara. Hala ere, badago zerbait gustatzen ez zaiguna.

– Bota.

- Eguraldia. Hona etorri izan garen ia gehienetan euria eta eguraldi iluna tokatu zaigu. Guri eguzkia gustatzen zaigu, eguzkia bizi-pozta da. Are gehiago, Elgoibarren familia izango ez bagenu, seguruenen ez ginatke berriz itzuliko Euskal Herrira. Behin etorri ginen, ezagutu genuen eta kitto. Baina eguraldia...

– Nola ikusten da Euskal Herria Madriletik?

- Egia esan ez dago oso

irudi ona. Komunikabideetatik iristen zaigun guztia notizia txarrak dira eta badi-rudi etengabe borrokan zaudetela hemen. Madrildar askok euskaldunoi mania dizuete eta nahiz eta Euskal Herria ezagutu nahi, beldurragatik ez dira etortzen. Lehen aldiz etorri ginenean, jende askok komentatu zitgun ea nola erabaki genuen Euskal Herrira etortzea. Gauza bat esango dizut, gure obsesioa garajea zuen hotela topatzea zen, Madrileko matrikularekin beldur ginelako zerbait egingo ote ziguten. Orain lasai ibiltzen gara baina badaude hiru herri hurreratu ere egingo ez garela: Hernani, Orereta eta Tolosa.

– Eta zerekin egin duzue topo?

- Oso jende atseginarekin. Alde horretatik madrildarrak eta euskaldunak antzerakoak gara. Guk beti harrera bikaina izan dugu hemen, ez bakarrik familiarekin, baita hauen lagun eta ezagunekin ere, kaletarrek... Oso gustura ibiltzen gara Euskal Herrian. Andaluzian, esaterako, jendea hasiera batean oso alai eta irekia da baina gerora, ez dira fidatzekoak. Euskaldunak, aldiz, oso lagun onak dira. Gauza batek harritu gintuen, guk uste baino gutxiago entzuten da kalean euskara.

– Zer eskaintzen dio Madrilek euskaldun bati?

- Euskaldun bati eta edozeini, Madrilek milaka gauza eskaintzen dizkio. Kale eta eraikuntza zoragarriak, parke ederrak, museoak, jatetxerik onenetarikoak, giro aparta eta jende eskuzabala. Madrileran behin joaten dena, itzuli egiten da.

BESTEAK ESANA

“Ardura, beldur eta kuriosidadiakin etorri zian eta Euskal Herrira trankila eta ederra dala ikusi zeben.”
MANOLO REMENTERIA, aitaginarrebakidea



Nor ote da?

Denok dakigu gaur egun ertzairen jazarakerak nolakoak diren. Batzuek gorritz jantziak, besteak beltzez etab. Beste zenbait “bizkarzain” betaurreko beltzez eta erropa edo jantzi ilunez.

Ez dakiguna da, 36ko gerrotean nolako jantziak zermatzaten, bai batzuk zein besteek. Dakiguna da, Jose Antonio Agirre Euskal Gobernuako lehen Lehendakariaren bizkarzaina izateaz gain, bere eskolako motorizatua ere izan zela.

Gaztetan, hargin eta zurgin edo arotz lana zuela bere ogibidea edo bizibidea, gerora aldatu bazuen ere.

Baina, nor da Elgoibarren, jaio, hazi eta bizi den pertsonaia hau?

Testua: Felix Etxeberria
“Parapan”

Erantzuna baldin badakizu, bidali BARREnera.

Petra Encina Martínez

(1908-1981)



- 1908ko martxoaren 14an jaio zen Nafarroako Lodosa herrian.
- Zazpi anai-arreba izan ziren, berau bosgarrena.
- Lodosan oinarrizko ikasketak egin eta gazterik irten zuen etxetik zerbitzatzera, familia handi xamarra baitzen. Urte askoan jardun zuen zerbitzatzera.
- Quintin Agirrerekin ezkondu eta bi seme izan zituzten.
- 1956an Elgoibarrera etorri zen familia osoa eta San Frantzisko kalean, sasoi batean “Patxika” denda zegoen lokalean ardo almazena ipini zuten. Ardoa ezezik, etxeetara zerbitzuak, salmentak eta horrelako lanak egiten bizimodua aurrera ateratzea lortu zuten.
- Geroago, Pedro Migel Urruzuno kalera aldatu ziren eta bertan ireki zuten “Quintin” bodega, taberna ere bazena.
- Bertan mahai biribil bat eduki zuten, ospe handia hartu zuena, jende askok karta jokoan egiten zuelako eta beste mordo bat begira egoten zelako.
- Petra, bere irribarre bereziarekin, ezaguna zen herrian. Jendearekin hitz egitea gustatzen zitzaion. Familia girokoa zen. Josten trebea eta sinesmen handikoa.
- 1981eko urtarrilaren 31n hil zen 72 urterekin.

Juanito Gorostiza

Nor ote da?

Joan den asteko, 194. zenbakiko “nor ote da?” lehiaketaren erantzuna: Modesto Mujika. Asmatzaileak Idoia Uriarte eta Ana Maria Mugerza izan dira.



IRIONDO
Taberna
Trinitate zoriontsuak!
P. Muguruza 2.
Elgoibar

ITURRI
Taberna

Foruen Plaza, 5 - ELGOIBAR



ELENA
ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89



A

Argazki hau **Pedro Mari Azpia-
zuk** lagatakoa da. 1966ko ekaina-
ren 12koa da, Elgoibarko Euskal
Jaiaren bueltan argazkiko txistulariek
Patxiko Etxeberriari egin zioten
omenaldikoa. Erretratukoak desagertutako merkatu plaza
zaharraren aurrean daude. Bitxikeria modura, ez genuke

aipatu gabe lagatzerik nahi txistularien atzean ageri den
furgoneta-saltokia.

Txistulariak honako hauek dira:

Ezkerretik eskumara: **Juan Arrieta, Jose Antonio Zu-
biaurre, Pedro Mari Azpiazu, Kontxita Juaristi, Txo-
min Mujika eta Rikardo Gorriti.**

Aurrean, **Jose Inazio Sarasua.**



Trinitate jai zoriontsuak!

Gabi
JATETXEA

• PINTXOAK •
Despedidak, ospakizunak
MENU BEREZIAK

Nafarroa enparantza ? Tel 74 12



“Bigarren mailan egoteko apustua ein dau Klubak”



Jose Ramon Zabala

■ **Adina: 26**

■ **Noiztik zara klubeko bazkide?**

Oin dala 6 urtetik

■ **Talde guztien partiduetara**

joaten zara? Haundixan guztietara eta bestietara ahal dotenian

■ **Zenbat bazkide egitearekin**

konformatuko zinateke? Gustora geratuko nitzan elgoibartar bakoitzak ahal daban moduan futbolari lagunduko bazion

– **Zer moduzkoa izan da denboraldia klubarentzat?** - Oso ona errejionala bigarren mailara bajau ez balitz. Entrenadorian esku baino jokalarixen esku eon da hor mantentzia. Halere, klubak ere badaka responsabilidadian parte bat.

– **Ikusi al zenuen nesken partidua?** - Bai, jende asko eon zan. Haundixan partidu batian baino gehixo.

– **Merezi al zuten galtzea?** - Egixa esan bestiek hobeto jokatu zaben. Jokalari oso on bat zaken. Halere, gure neskek merito haundixa dake. Bi urte eon dia igotzeko, baina azkeneko partidua galdu dabe bixetan. Dedikazio handixa jartzen dabe, baina, dana dala, igo ezkerro dedikazio askoz haundixaua euki biharko leukela konturatu bihar diaz.

– **Haundi-a ere play-offean.** - Ligan ekipua bigarren geratu da eta oso pozik gaoz. Jende ona dao eta girua ere bai. Irabazteko aukerak badaukaguz. Etzeko partiduetan zaila da guri irabaztia. Hoiek ateratzen baditxugu eta kanpuan zeozer eitxen badou lortu leike. Espe-rantzia haundixa dakagu.

– **Nolakoak dira arerioak?** - Tropezon eta Oberena iez tokatu jakuzen eta Fraga taldian partidu bat ere ikusi dou. Ekipo onak diaz baina gure dibisiua fuertiena dala esaten da. Momentuz ez dakagu bilurrik; eurak euki bihar digute guri bilurra.

– **Klubak mantendu dezake talde bat 2. mailan?** - Kluban apostua izan da 3. dibisiuan goixan ibiliko dan talde bat eukitzia. Egixa da momentuan kanpoko jokalaria asko daudela, baina biha-

rrerkua da. Ekonomikoki, nahiz eta aurten galerak izango ditzugun, badakigu gastuak haundixauak diala, baina ointxe da aukeria. 2B mailara ixotzeko apustua ein dau klubak, nahiz eta tokatzen jakuna baino kategorixa altuaua dan.

– **Prestatzen ari zarete Haundia-ren igoerako ospakizunak?** - Ondiok denbora nahikua dao zeozer eitxen has-teko. Ospakizun haundixa merezi dabela ez dao dudarik baina herrixak zelan eratzuten daban ikusi bihar da, ze oin arte jendiak ez dau erantzun. Eitxekotan ixo ginan azken urteko moduko ospakizuna izatia nahiko gendun, merezi daben bezelakua.

– **Gainontzeko ekipoak zer?** - Ohorezko ligako jubenilak topera dabiz. Asteburan partidau enpatau ezkerro ixo eixzen diaz. Eta 2. jubenilek ere oso denborada ona ein dabe. Hauek ere azken partidua dakate. Guriak irabazi ein bihar dabe eta Urki berdindu edo galdu. Jubenilak 1. jubeniletara ixo ziazen.

– **Ekonomikoki zer moduz?** - Mintxetako sarrerak negargarrixak diaz, ez dao arbitrua pagatzeko ere. Bazki-diak mantentzen diaz baina urtero bajak eoten diaz. Zazpi ekipo daoz eta gastuak asko diaz. Aurten Udaletxetik merezi dogun laguntzia espero dou baina hala ere galerak izango ditzugu.

– **Noiz arte karguan egoteko prest?** - Beste urte bat gelditzen jata eta direktibiak ez dau pentsau ondiok segitxu ala ez. Ni gustura nao; nere inguru-kuak ez hainbeste. Baina klubian jarraituko dou lanian, hori seguru.

K I R O L A L B I S T E A K K I R O L A L B I S T E A K

● Finalistaren Eguna ekainaren 1ean

Morkaikok Finalista Eguna antolatu du datorren ekainaren 1erako, igandea. Ohi denez, San Pedron izango da jaia. Domina banaketaz gain, aurten Modesto Mujika zenari omenaldia prestatu du elkarteak eta bere alargunari plaka bat emango zaio. Haritz Dantzari Taldekoek eta Udal Txistulariek parte hartuko dute ekitaldian. Eguerdian bazkaria izango da eta arratsaldean Zuhaitz Astialdi Taldekoekin jolasak egiteko aukera izango dute gaztetxoek. Izena emateko Morkaikora deitu ostiral arratsalde eta larunbat goizetan (74 02 97).

● Hasi da Sigmako Pilota Txapelketa

Estarta Elkarteak antolatuta, atzo, hilak 22 hasi zen Sigmako eskuz binakako XVII. Txapelketa. Hiru kategoria ezberdin egongo dira: afizionatueta 1. eta 2. mailak eta infantilak. Partiduak Sigmako frontoian jokatuko dira astearte eta ostegunetan arratsaldeko 19:30-20:00etatik aurrera. Lehen eta bigarren mailan talde bakoitzeko bi lehenengoak sailkatuko dira. Txapelketa uztailaren azken astean amaituko da.


Ana Etxaniz, Gipuzkoako txapelduna luzeran jauzian eta 60 metro hesietan Elgoibartarra Gipuzkoako txapeldunordea da 150 m. hesietan eta altura jauzian

Joan den larunbat goizean Gipuzkoako Eskoarteko Altetismo Txapelketa jokatu zen Mintxetan. Elgoibartarren presentzia murrizta izan bazen ere, hiru partehartzaile besterik ez, emaitzak benetan onak izan ziren. Ana Etxaniz Gipuzkoako txapeldun izan zen 60 metro hesietan 11 segundo eta 40 ehuneneko denborarekin. Beste elgoibartar bat, Eire Vila, hirugarren lekuan sailkatu zen 11 segundo eta 70 ehunenekorekin. Hirugarren partehartzailea Maite Elizburu izan zen. Pisu jaurtiketan aritu zen Maite eta 7 metro eta 58 cm. jaurti zituen. Eire Vilak zein Maite Elizburuk asko hobeto dute azken aldian 60 m. hesietan eta pisu jaurtiketan.

Ana Etxaniz, txapeldun handia

Ana Etxanizek kirolari handia dela erakutsi berri du. Gipuzkoako Eskolarteko Altetismo txapelketan, bi txapel eta bi bigarren postu lortu ditu. Luzera jauzian eta 60 m. hesietan lehen postua eta alturan eta 150m. hesietan bigarrena. Honez gain, 60 metro erreleboetan ere Gipuzkoako txapeldun izan da Maialen Mora, Eire Vi-

la eta Amaia Oterorekin batera. Etorkizun handiko kirolaria da elgoibartar gazte hau. Aurten erakutsi du kalitatea izan baduela. Zorteak lagun diezaiola, besterik ez.



Erdian, Ana Etxaniz txapelduna eta eskuman, Eire Vila.

aitor

Zoritxarraren itzalpean

C.D. Elgoibar Elkarteko nesken futbol taldeak ezin izan zuen zapatu arratsaldean Mintxetan jokatu zuen futbol partidua irabazi. Berebiziko garrantzia zeukan partidua irabazteak; Euskal Ligara igoera eta Ligako txapela zegoen jokoan. Ezin ukatu gogor saiatu zirenik. Baina ezin. Bera herriko Gure Txokoa taldekoek bi gol sartu zituzten eta elgoibartarrek bakarra. Leire Rodriguez elgoibartarrek sartu zuen lehen gola, baina 25. minutuan berdinketa gertatu zen eta azken txanpan, beratarrek bigarren gola sartu zuten.



Txapeldunordeak izan arren, etsipena eta tristura nabaria da nesken aurpegietan.

aitor

EMAITZAK

Futbola

Amorebieta 2 - Haundi 0
Bergara 0 - Elgoibar 2 (Oho. jub.)
Urki 6 - Elgoibar 1 (2. jub.)
Elgoibar 1 - Gure Txokoa 2 (Neskak)
Hernani 1 - Elgoibar 2 (Kad.)
Elgoibar 1 - Real Sociedad 7 (Inf.)

Saskibaloia

Elgoibar 71 - La Salle 81

Eskubaloia

Arrasate 15 - Tecnomeca Elg. 34 (Jub. mut.)
AloLa Mendi 15 - Pagoaga Elg. 25 (Jub. nes.)
Beasaino 24 - Pneumax Elg. 29 (Kad. mut.)
Arrate Txiki 4 - Unceta Elg. 45 (Kad. nes.)

Areto futbola

Hostrinor 3 - Elgoibar 0 (Auton.)
Axular Liz. 3 - Elgoibar 0 (1. maila)

Pala Txapelketa

Etxeberria/Urquien 19 - Gurrutxaga/Bergua 35
R. Rico/De Arriba 35 - Eizagirre/Azpiazu 16
Urigoitia/De la Mata 35 - Beneitez/Gabilondo 28

Eskolarteko jokoak

Saskibaloia (Benjamin mutilak):
Mendaro A2 - Ikas Kirol 4-2
Ikas Marrazo - Ikas Txut 4-20
Mendaro A1 - Ikas Zirt 12 - 10
Pilar Flah - Pilar Lakasitos 6-14
Saskibaloia (Benjamin neskek):
Pilar Usoak - Ikas Izurde 8-2
Ikas Izar - Pilar Kas 0-12
Mendaro B - Urasandi 12-4

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 24
16:30 CD.Elgoibar - Beraun (Oho. Jub.)
18:15 CD. Elgoibar - Alde Zaharra (2. Jub.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Igandea, 25
10:30 Pagoaga Elg. - Amen. Zarautz (Jub. nes.)
12:00 Tecnomeca Elg. - Arrate Txiki (Jub. mut.)

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 23
20:45 Elgoibar - Gubi Zarautz (1. maila)
21:45 Elgoibar - Pascual (Auton.)

Sigmako Pilota Txapelketa

Asteartea, 27
19:30 Olaso/Lazarobaster - Esnaola/EgaLa
Garate/Gerrikabeitia - Olabe/Angel
Osteguna, 29
19:30 AgirrebeLa/Unai - Karmel/Balzola
Perea/Arillaga - Ibarluzea/Iparragirre

Pala Txapelketa, Ikastolan

Larunbata, 24
16:00 Gurrutxaga/Bergua - R. Rico/De Arriba
17:00 Beneitez/Gabilondo - F. Rico Aranegi
17:30 Urigoitia/Urquien - Eizagirre/Azpiazu

Ramon García txirrindularia hamargarrena iritsi zen Mintxetako helmugara

Elgoibartarra Gipuzkoako txapelduna izatea espero zuten Lagun Taldekoek

Nahi eta ezin. Bi hitz hauek ederki laburtzen dute joan den domeka arratsaldean Ramon García elgoibartar gazteari gertatutakoa. Elgoibarren izan zen Gipuzkoako txirrindulari txapelketan Ciclos Iñigo taldeko García hamargarren lekuan ailegatu zen helmugara, nahiz eta azken lasterketa guztietan lehendabiziko postuetan sailkatu den. Gainontzeko elgoibartarrak sailkapen nagusian nahiko atzera sailkatu ziren. Denera Lagun Taldeko jubilenen taldeko 13 txirrindularik hartu zuen parte.



Irabazleak podiumean. Ezkerrean Ramon García, elgoibartar onenari eman zitzaion sariarekin.

Lasterketa arratsaldeko 4:30etan hasi zen Plaza Handian eta helmuga Mintxetan kokatu zen. 109 kilometro korritu zituzten guztira. 170 partehartzailetik 125 lasterkarik amaitu zuten ibilbide osoa.

Sailkapen nagusia

- 1- Joseba Zubeldia (2h42'14")
- 2- Zuhaitz Ayuso (2h42'19")
- 3- Ander Pérez (2h42'26")

Lagun Taldekoak

- Ramon García (2h43'38")
- Arkaitz Martínez (2h44'28")
- Antxon Etxaniz (2h45'21")
- Unai Etxeberria (2h45'21")
- Oier Oregi (2h45'21")
- Igor Fernández (2h45'21")
- Alberto Díaz (2h50'29")
- Alex Aranbarri (2h50'52")
- Alex Fernández (Erretiratua)
- Jon Oregi (Aberriatik erretiratua)
- Oscar De Diego (Erretiratua)
- Alex López (Erretiratua)
- Joseba Arrillaga (Erretiratua)

85 lagunek hartu zuten parte mendi itzulian

Iragan berri den domekan, 85 mendizale Karakate aldera abiatu ziren goizeko 6:30etan Elgoibarko mendi itzulia egiteko asmoz. 40 kilometro inguru dira mendian zehar oinez egiten direnak. Eguraldiak ez zuten sorpresa txarrik eman eta mendizaleek gustura egin zuten ibilbidea eguzkipean. Morkaikoko lehendakaria den Jon Peli Uriguenek azalduta-

koaren arabera, lehen taldea eguerdiko ordu bata t'erdia aldera iritsi zen Elgoibarrera, 6 ordu eta erdiko ibilaldia egin eta gero. Tomas Arrieta, Kerman Moreno, J. M. Arakistain eta Aitor Loidi mendizaleak osatzen zuten taldea. Mendizale gehientsuenak, berriz, 2:30ak aldera ailegatu ziren, 9 ordu ingurutan egin zuten hauek mendi-buelta. Azken taldeak 11 ordu

behar izan zituen itzulia amaitzeko. Abiatu ziren 85 lagun artetik, 10 batek ez zuten mendi-buelta amaitzerik lortu. Zatik gogorrena Morkaikora igoera izan zela esan digu Jon Pelik, bide zaharretik igo zuten eta. Elgoibarrera iritsi ahala, Morkaikoko kideek bazkaria eskaini zieten partehartzaileei merkatu plaza gainean inprobisatu zen komedorean.



Mendizaleak San Migelen indarrak berreskuratzen.



Partehartzaile gazteenak eta nagusiena. Cristina Etxeberria, Mari Luz Izagirre eta Anahi de La Cruz.

KAFE

SARRERA

500 pta.

Kafea, pastelak, kopa
eta IKUSKIZUNA!

Maiatzak 30, ostirala

Gaueko 10:30etan

Kultur Etxeko sotoan

Ane
Zubia

Pianoa



Alberto
Iriondo
eta
Susana
Markano



Leonor
Gimenez
eta
Banessa
Gonzalez



Unai
Alonso
eta
Kristina
Etxeberri



Iñaki
Odrizola

Poesia
erezitaldia

Argazki
erakusketa



Antolatzailea:
ELGOIBARKO IZARRA



Babesleak:

XIGORTZE KOMERTZIALA
Kafe banatzailea

AITZBIZKAR
Edari banatzailea

KARKIZANO
Mertzeria

Musikeskolako ikasturte amaierako kontzertuak

Inazio Bereziartua musikeskolako ikasleen ikasturte amaierako bi kontzertu izan dira pasatu berri den asteazken eta ostegunean. Asteazkenean lehen kontzertua eskaini zuten Herriko Antzokian. Hamahiru saio ezberdinez zegoen osatua kontzertua, saxoa, oboea, pianoa, metalzko eta kordako laukoteak, flauta, eta "Hauspoa" soinu taldea besteak beste. Ostegunean bigarren saioa izan zen Akordeoi taldea, Txistu taldea, Klarinete taldea, Gazteen Banda, abesbatza eta Haize taldearen eskutik.

Igandean, tanborrada

Musikeskolak antolatutako beste ekintza garrantzitsua Trinitateetako igandean izango den Haurren Tanborrada da. Egurdiko 12etan musikeskolako haurrak Plaza Handitik aterako dira. Tanbor eta barrika hotsei lagunduz, Gazteen Bandakoak arituko dira. Ikasturte amaierako saioak amaitzeko, ekainaren 5ean, osteguna, dantza saioa izango da eta ekainaren 14an, euskal dantza saioa.

Musikeskolak, Musikaldi 97an

Bihar, hilak 24, Inazio Bereziartua Musikeskolako Gazteen Banda, Akordei Taldea, Txistulari Taldea eta Abesbatza Pasaian izango dira "Musikaldi 97" ekitaldian parte hartzeko. Duela bi urte sortu zen Euskal Herriko Musikeskolen Elkartearen eskutik eta Euskal Herriko musikeskola guz-

tien jaigune eta topaleku izan nahi du Musikaldi 97k. 2.300 ikasle inguru elkartuko dira jai erraldoi honetan. Goizeko 11ak eta ordu bata bitartean musika aktuzio guztiak izango dira, eta arratsaldean, ETBn botako duten kontzertuaren entsaiua egingo dute. Iluntzeko 8:30etan Elgoibar aldera itzuliko dira.




hari Taldea, asteazken iluntzeko kontzertuaren une batean.

"Nire leihotik argazki erakusketa

Erainaren 14ra bitartean egongo da irekita Kultur Etxean ikusgai dagoen "Nire leihotik" izenburuko argazki erakusketa. Joan den ostiral iluntzean egin zen erakusketaren

inaugurazioa. Ekitaldian erakusketa-
ren bi komisario izan ziren, Pepe Font de Mora valentziarra eta Salvador Rodés katalana. Haez gain, Jaime Martin eta Jesus Irigalba argazkilari nafarrak, Roberto Botija bilbotarra, bai eta Gorka Salmerón, Aitor Baio eta Felipe Loiola argazkilari gipuzkoarrak ere izan ziren. Argazkilariekin batera, Gillermo Garate alkatea, Ana Santolaia kultur zinegotzia eta Ongarriko presidentea den Ramon Ortégak ere hartu zuten parte inaugu-



Zeresanik eman duen argazkirik ere ba omen dago.



Inaugurazioan zehar, argazkilariak euren lanak komentatu zituzten.

razio ekitaldian. Leihoa erreferentzia hartuta, 28 argazkilariaren interpretazio ezberdinak jasotzen dituzten lanak biltzen dira erakusketan. Argazkilari ezagunen artean, hain ezagunak ez direnen argazkiak ere badaude.



Aktore bidean

Herri Eskolako DBHko 1. eta 2. mailako antzerki tailerrekoek "Itsasoan galduak" antzeztuko dute hil honen 28an, asteazkena. Xabier Ansola eta Lucia Etxabe irakasleen laguntzarekin, ikasturte osoan zehar prestatu dute aktore gazte hauek aipatu obra. Joan den astean Eibarren Deba Behako Eskolarteko Antzerki erakusketan parte hartu zuten, lehen emanaldia jende aurrean eta, esan digutenez, "urduri baina oso gustura" ibili ziren.

“Istorioa gerra garaian kokatzen da. Atzerrira doazen haurrez beteriko itsasontzi bat hondoratu eta neska-mutilek almadi batean iraubizidun behar dute”. Jose Martin Urrutia “Txotxe”k idatzitako antzezlan da eta ikasturte osoa eman dute prestatzen. Taldekide batek azaldu digunez, “superbibentziari buruzko istorixia da. Hiru neska eta hiru mutil gertatzen

dia almadian eta hasieran jefia izendatu bihar dabe, euren artian dana diskusiua da....”.

12 eta 14 urte bitarteko 24 ikaslek osatzen dute taldea, “Ilargipean” izenekoa. Sei protagonista ezezik, beste hainbat pertsonaia ere daude, “bi pertsona antzerki bat ikustera juten dia eta antzerki horrek gure istorixia kontatzen dau, esperientzia hori benetan bizi izan zaban amona batek kontatzen dabalarik. Antzerki baten barruan antzerki bat sartzen da”.

Inprobisazioa eta jolasak

Inprobisazio eta jolasen bidez antzerki bati buruzko lehen hastapenak ematen dituzte ikasturte hasieran. Izan ere, gazte hauentzat lehen esperientzia izan ohi da eta, poliki-poliki hasi behar dute aktore lana ezagutzen.

Hortik aurrera, antzezlan desberdinak irakurri eta bat aukeratu zuten, “Itsasoan galduak” hain zuzen.

Obra honen aukeraketa, beste gau-

za batzuen artean, dekoratuaren sinpletasunak eragin zuten, “bazakigun Eibarko antzerki topaketetan parte hartu bihar genula eta ezin ginan hasi kriston eszenarixua montatzen. Zeozer erreza eta sinplia izan bihar zan, bai itxeko, bai montatzeko”.

Erropekin izan dituzte arazoak, “BARRENen jarri genun anuntzio bat pirata erropak eskatzen baina ez zigun inork ere deitxu. Azkenian, etxetik ahal genuna lortu eta danon artian banatu gendun eta EKEKEI taldekuek ere laga digute zoezer”.

Jendearen txaloak

Gustuko dute antzerki mundua neska-mutil gazte hauek, “hasieran jende aurrera urtetziak kortia ematen dau baina eszenarixoa gainian zaude-nian dana ahaztu eitzen jatzu eta oso ondo pasatzen dozu”. Hori bai, inprobisazioa ere asko landu behar izan dute, “Eibarren testua igual ahaztu eitzen jakun eta asmatu ein bihar izan gendun. Gainera, zailena espresia da, eta berba ondo eixia”. Era batera edo bestera, datorren asteazkenean Herriko Antzokian bi emanaldi izango dituzte “bat ikastetxeentzako, arratsaldeko 3:30etan eta bestea herritar guztientzat, arratsaldeko 8:00etan”. Bieta-rahilik eta jende gehien hurreratzea da euren desioa, “oso ilusionatuak gaude eta politxena, gure arteko giroa, talde lana eta jendian txaluarak dia”.

INTERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emaileak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	741626
Kirolegia	744415
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre	74 02 67
Ezenarro (Meka)	74 44 80
Ikastola	74 44 41
L.H.I.	74 44 80
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo EspaDol	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki Irratia	74 34 74

23
ostirala

19:30 HITZALDIA

Gaia: ELA-LAB
Hizlaria: ELAko German Kortaberria
Kultur Etxean
Antolatzailea: Kimetz
Elkartea

22:15 ZINEA

“Los demonios de la noche”

23:00 BLUES
KONTZERTUA

Taldea: C.U. Rock&Blues
Lanbroa tabernan

24
larunbata11:30 ZAZPIKIREN
BILERA

Ganbaran

19:30-22 15 ZINEA

“Los demonios de la noche”

26
astelehena

22:15 ZINEA

“Los demonios de la noche”

27
asteartea

19:00 HITZALDIA

Gaia: Gastu militarrek eta objezio fiskala
Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Talde Antimilitarista

29
osteguna

22:15 ZINE KLUBA

“Anabasa eremua”
laburmetraia
“La segunda vez” filmea
Antolatzaileak: Talde Antimilitarista eta Ongarri Zine Kluba

30
ostirala18:00 JOLASAK
HAURREKIN

Plaza Handian
Laguntzailea: Zuhaitz Astialdi Taldea
Antolatzailea: Talde Antimilitarista

22:15 ZINEA
“Dante’s Peak”22:30 KAFE
USAINEAN

3. saioa
Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra

ZINEA



Zuzendaria: Stephen Hopkins
Antzezleak: Michael Douglas, Val Kilmer, John Kani

Los demonios de la noche

Afrikako kondaira batean oinarrituta dago. Ba omen dago Afrikako zaindari diren bi lehoi basati. Afrikara zubi bat eraikitzeko asmotan doan talde batek bi lehoi hauei aurre egin beharko die euren asmoa gauzatu nahi badute. Ehiztari beterano bat eta irlandar egoskor bat lehoiak ehizatzen ahalegin duko dira.

TRINITATE JAIK

Larunbata, 24

9:00 Ehiza Txakurren Trinitate Sari Nagusia, Albitxur

11:00 Haurrentzako parkea Plaza Handian

16:00 XIV. Xake Txapelketa Kultur Etxean Zubi-Ondoren eskutik

16:30 Haurrentzako parkea Plaza Handian

22:00 dantzaldia Gelatxoekin Plaza Handian

23:00 Nagusien Tanborrada. Irteera Plaza Handian

Igandea, 25

9:00 Diana Udal Txistulari. Taldearekin

9:00 Pitxoi tiraketa herrikoentzat Albitxur

11:00 Meza Nagusien parroki

11:00 II. Artisanu Azoka Leku-Ederren

12:00 Haurren Tanborrada Musika Fundazioak antolatuta. Irteera Plaza Handian

16:30 Haurrentzako parkea Plaza Handian

16:30 Erraldoi eta buruhandien kalejira

20:00 Golden Apple Quartet taldearekin kontzertua Herriko Antzokian

● “Kafe Usainean”

Maiatzaren 30ean, ostirala, Kafe Usainean egitasmoaren 3. emanaldia izango da Elgoibarko Izarrak antolatuta. Gonbidatuak hauek dira: pianoarekin Ane Zubia; pianoa eta klarinetarekin Susana Markano eta Alberto Iriondo; kitarra eta flautarekin Leonor Gimenez eta Vanessa González; saxoa eta pianoarekin Unai Alonso eta Kristina Etxeberria eta, amaitzeko, Iñaki Odriozolak bere poesien errezitaldia eskainiko du. Intsumisioari buruzko agazki erakusketa ere izango da.

● Igande eguerdian, Haurren Tanborrada

Inazio Bereziartua Musikeskolak antolatuta, Trinitate egunean, hilak 25, Haurren Tanborrada izango da. Egurdiko 12etan musikeskolako haurrek Plaza Handian elkartuko dira kalejiran irteteko asmoz. Tanborradako tanbor eta barriren hotsei laguntzen Gaztetxoan Banda arituko da bigarren urtez. Tanborradako doinu ezagunak bezperan ere entzungo dira, oraingoan Nagusien Tanborradarekin. Gaueko 11etan hasiko da kalejira Plaza Handian, Udal Musika Bandak lagundurik.



● Nahaste-Borraste prestatzeko deialdia

Kimetz Elkartek bilera egingo du hilaren 28an, asteazkena, Nahaste-Borraste lasterketa herrikoian 13. edizioaren prestakuntza lanekin hasteko. Bazkide guztiei dei egiten zaie bilerara joan daitezten. Bestetik, gaur, hilak 23, ELAko ejekutibako German Kortaberriak hitzaldia emango duela arratsaldeko 7:30etan Kultur Etxean gogorarazi nahi dute.

● Antimilien As-tea

Talde Antimilitarista “Aste Antimilitarista” ospatuko du hilaren 26tik ekainaren 1era bitartean. Astelehenerdik igandera arte, intsumisioari buruzko argazki erakusketa izango da herriko tabernetan eta hilaren 30eko “Kafe Usainean” saioan. Asteartean, hilak 27, “gastu militarrek eta objezio fiskal”ren inguruko hitzaldia izango da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Ostegunerako, zinea antolatu dute. Lehendabizi Josu Eizagirrerren “Anabasa eremua” laburmetraia ikusi ahal izango da. Laburmetraia hau estraineko emango da Euskal Herrian eta Ondarroako herriaren laguntzarekin egina dago. Segidan, zine klubari dagoen pelikularen txanda izango da. Tartean txaparririk ere egongo da. Hilaren 30ean, haur eta gaztetxoentzako marrazki saioak, jolasak eta talde-dinamikak egingo dira Plaza Handian Zuhaitz Astialdi Taldekoen laguntzaz. Azkenik, hilaren 31n, larunbata, “Fundiziyue” eta “Arawak” musikaldeek kontzertua emango dute Madalan gaueko 11etan.

TXAN-DAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
24	Bidasolo	Zabaleta
25	Bidasolo	Zabaleta
26	Bidasolo	Bidasolo
27	Yudego	Yudego
28	Ormazabal	Ormazabal
29	Etxeberria	Anduaga
30	Bidasolo	Zabaleta

Zabaleta: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

Anduaga: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42

OKINDEGIA

25igandea Doña Mercedes

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: M. Calopresti
Antzezleak: Nanni Moretti, Valeria Bruni Tedeschi

La segunda vez (Italia 1996)

Turineko irakasle batek atentua izango du. Bala buruan geratzen zaio. Ezker muturreko emakume bat izan zen tiro egin ziona. 30 urte beranduago, bergizarteratze programa bat dela eta, biek topo egingo dute. Bien artean sortzen den eztabaida sakonak Italiako historia berria isladatzen du. Pelikula honetako emakume protagonistak Italiako “David Donatello” saria jaso zuen (Espainiako Goya sariaren parekoa).

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VFR motorra (berria). **☎ 907 84 40 54** (Unai)
- ◆ Bi sofa, hirukoa eta bikoa salgai. Prezio interesgarriak. **☎ 74 22 78** (Gauzez)
- ◆ Poliesterrezko Yamaha itsasuntzia salgai. 4 zaldiko motorra. 4.50ko luzera eta 1,50ko manga. **☎ 19 13 07**
- ◆ Opel Kadet diesel saltzen dut. 150.000 pta. Tel: **☎ 74 23 67**
- ◆ Ambra 186 ordenagailua. DX2 modelua. 66 MHz, disko gogorra 243 mega, RAM 8 mega, 14 pulgadako ambr monitorrea koloretan, teklatura eta arratoia 50.000 pta.n saltzen dut. **☎ 12 71 92** (M. Eugenia)
- ◆ Mendaroko Irrintzi liburudenda trasapazten dut. **☎ 75 61 53**
- ◆ 1'40x2'00 m-ko sofa-oheta salgai. Estreinatua gabe. Prezio erdian. **☎ 19 25 91** (Javier)
- ◆ Logela baterako altzariak salgai: ohea, mesanotxea, hiru ateko armairua, eskritorioa eta estanteriak. **ERRIAK ☎ 74 12 85**

- ◆ **EROSI ◆**
- ◆ Land Rover motza erosiko nuke. **☎ 74 41 77** (20:00-21:00)
- ◆ Keroseño estufa erosiko nuke. **☎ 74 04 59** (gauzez)

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Sukaldaria behar da. **☎ 70 06 02 / 906 15 74 03** (Guillermo)
- ◆ **ESKAERA ◆**
- ◆ Neska batek haurrak eta etxekolanak egingo lituzke. Euskalduna eta espantziarekin. **☎ 74 31 88** (Amaia. Goizez)
- ◆ 18 urteko neska sukaldeko lanak edo garbitasuna egingo luke. **☎ 74 36 38** (Arantza)
- ◆ Umeak zainduko nituzke egun osoan edo orduka. Neska euskalduna esperientziarekin. **☎ 74 34 99** (Eulali)
- ◆ Kliniketa eta psikiatria auxiliarrak gaixoak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. **☎ 74 05 45**
- ◆ Kliniketa laguntzaileak gaixoak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. **☎ 74 03 98**
- ◆ Neska gazte batek haurrak zaindu edo propaganda banatuko luke. **☎ 74 04 56.**
- ◆ Gaixoak zaindu, etxea zaindu, enpapelatu lanak, sukaldekoak etab. Egiteko prest nago. Carmen Jorquera. **☎ 75 62 57**
- ◆ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). **☎ 75 26 75** Mari Karmen
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. **☎ 74 22 78**

Etxebizitzak

- ◆ Torrevejian apartamentua alokatzen dut. (Ekaina eta iraila). **☎ 74 24 50**
- ◆ Bungalow-a alokatzen dut Santa Polan udan, utzailan izan ezik. **☎ 74 12 13** (Carmen, gauzez)
- ◆ Jakan apartamentu bat alokatzen da. (Membrilleras-en). **☎ 74 20 31**
- ◆ Benidorm-en apartamentua alogeran. Hondartzako lehen hilaren. **☎ 74 20 31**
- ◆ 3 logelako eta amoblatur dagoen etxe bat alokatu nahi da, irailetik aurrera. **☎ 72 20 03** (Ainhoa. Asteburuetan deitu)
- ◆ Pisu salgai Pedro Muguruzan. **☎ 74 04 56** (Maria)
- ◆ Etxea saltzen dut Santa Ana 10-4n. **☎ 75 62 34**
- ◆ Majatzetik irailera bitartean etxea alokatzen dut Jakan. **☎ 74 15 22**
- ◆ Donostian (Paseo Rondan) pisu bat alokatzeko daukat. **☎ 74 18 34**
- ◆ Ekainetik aurrera apartamentu bat alokatzen da Benidormen Levahteko hondartzako lehen hilaren. 3 logelak, 1B, igerilekua, parking-a. **☎ 74 20 31**
- ◆ Udan, utzailan izan ezik, Santa Polan (Alcantar) bungalow-a alogeran **☎ 74 12 13** Carmen (Gauzez)

Bestelakoak

- ◆ San Frantzisko iturrian urpe baten txaketa urdin bat topatu nuen asteazkenean. Udaltzaingora eramain dut. **☎ 74 21 40**
- ◆ Gopak josten dira beste bat neurria ekarrita. **☎ 74 21 40**
- ◆ 3 urteko haurra behar du eta salarako armairu bat. **☎ 74 15 09 / 74 15 19**
- ◆ Urrezko belarrikatu bat topatu nuen ostiral gauetan. Galtzarren jaietan. **☎ 74 22 03** (M. Doñores)
- ◆ Elgibarko folk taldeak **entsaiak-tzeko lokal bat alokatu** luke. **☎ 74 14 62** (Gauzez deitu. Alvaro)
- ◆ Husky siberiano eme bat ematen dut. Zuri-beltza. 8 urteko. **☎ 74 01 59** (bakuna guztiak jarrita eta papaleoa egina. Eskerrik asko)
- ◆ Eskiak (33 zenbakia) eta **bastoiak oparitzen** ditut. **☎ 74 34 24** (Mila)
- ◆ **WG autoko giltzak** topatu nituen Arnoaten eta Udaltzaingora eramain nituen.
- ◆ DBHko ikasleak **pirata jantziak eta tresnak behar** dituzte. Gaituzten baterako. Eskualdeko dantza eta lehenbaitelen behar dituzten. Institutura eramain zuten jantziak dituzte pertsonak. **☎ 74 01 59** (Eskerrik asko)
- ◆ Paper batan bilduta **dirua aurkitu** dut merkatu plazan. Gaituzten deitu **☎ 74 35 05** (Gauzez)
- ◆ **Eguzkeren Bilbora** goizean goiz kotexez doan norbaiten **ipian eta gustak konpartituko** nituzke. **☎ 74 08 78** Maitte.
- ◆ Alabaren **au-pair bat** hartuko luke familia jator batek. **☎ 74 39 66**
- ◆ Joan den larunbatean, hilak 12. Arregitorreko plaza-**xoan umea ipian polar bat galdu** zen. Aurkitu baduzu deitu. **☎ 74 15 09 / 74 12 57**
- ◆ Baitaiorako **mantoin eta armario** bat behar du Caritas-ek. **☎ 74 15 09 / 74 12 57**
- ◆ Zuzenbidean lizentziatutak **errenta aitorpenak** egiten ditut. **☎ 74 01 15**

Garajeak

- ◆ Garaje itxia salgai Arregitorren. **☎ 75 51 77**
- ◆ Marradun garajea alokatzen da San Roken, Karakate elkarte azpian. **☎ 74 18 37**
- ◆ Urasandin garajea dut alokatzeko. Marraduna. **☎ 74 31 07**
- ◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. **☎ 74 12 04** (20:00-22:00)
- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. **☎ 74 12 53**
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) **☎ 74 32 04**
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. **☎ 74 34 10**

Agurrak

- ◆ Zorionak **Eider Pérezi** maiatzaren 13an 9 urte egin zituelako. Ikas Izurdeen partez. Zorionak Ane Arrillagaren partez.
- ◆ **Enara Gorostizari** zorionak 6. mailako partez, gaur, hilak 23, 12 urte bete zituelako. 12 pizza zati Enararentzat, bereziki bere nobixuaren partez, Nick Carter.
- ◆ **Denis Sanchez** zorionak, atzo bere urtebetetzea izan zelako. Zorionak Jorobado de Notre-Damme, 5. mailako partez.

◆ Zorionak **Alicia Migales** hilaren 22an 18 urte bete zituelako. Ama, aita eta anaien partez.



◆ Zorionak **Miren** maiatzaren 20ean urteak bete zituelako. Familia-koak eta kuadrila-koak.



◆ Hilaren 25ean urteak betetzen dituen **Amaia De Castro** zorionak Dani eta Mertzxe-ren partez.



◆ **Nerea Pérez Castrillejori** zorionak Astudilloko aitona-amon eta osaben partez hilaren 18an 14 urte egin zituelako.

◆ Zorionak **Andoni**, zure hamabigarren urtebetetzean. Zoriontsua izan eta ondo pasatu. Amak. Ono pasa zure urtebetetzea Plentzian zure lagun guztiarekin. Aitxixta eta amaren partez.



◆ Zorionak **Nere Aranberriri** 13 urte bete dituelako. Etxekoan partez.



◆ **Olatz Albarra** zorionak familiaren partez hilaren 20an 19 urte egin zituelako.



◆ Zorionak **Amaia Palacios** igandean urte bat beteko duelako. Zorionak, baita ere, **Eduarne Gabilondori** maiatzaren 21ean 25 urte bete zituelako. M.Lourdes eta Chus.

◆ Zorionak **Janire Rovirari** asteartean urteak bete zituelako. Lehengusuen partez.

◆ Zorionak **Jose Mari San Martini** hilaren 28an 69 urte beteko dituelako. Ono pasa, emazte Jesusa, suin eta alabaren partez.



◆ Zorionak **Ainhoari** joan den igandean 9 urte bete zituelako, bere lagun Eiderren partez.

◆ Zorionak **Ainhoa Mendibili** hilaren 18an 9 urte egin zituelako. Ikas Izurdeen partez.

◆ **Ainara Sanchez** zorionak hilaren 15ean 18 urte bete zituelako. Olaiaren partez.



◆ **Judith Zabalari** zorionak hilaren 21ean urteak bete zituelako. Familiaren partez. Zorionak baita ere, 6. mailako eta batez ere, mutilen partez.

◆ Zorionak **Amaia Belzari** maiatzaren 20an 4 urte egin zituelako. Guraso eta ahizpen partez.

◆ Zorionak **Andoni Gabilondori** maiatzaren 21ean 10 urte bete zituelako. Etxekoan partez. Zorionak 4. mailako partez.

◆ Zorionak **Javi Arrese** eta **Javi Agirrerri** hilaren 21ean eta 25ean urteak beteko dituztelako. Familiaren partez.



◆ **Pilarri**, Errosario kaleko jatorrenari, zorionak hilaren 26an bere urtebetetzea delako.

◆ **Miren Mugerzari** zorionak guraso eta anaia Aitorren partez 8 urte egiten dituelako hilaren 24an.

◆ Zorionak **aitxixta eta amama Andone eta Manolori** hilaren 22an urrezko etaia egin zituztelako. Familiaren partez.

◆ Gaur urteak bete dituen **Pilar Agirrezabalari**, zorionak familiaren partez.

◆ Zorionak **nesken futbol taldeari** bigarren urtea delako txapeldu-norde geratzen direla. Hurrengo urtean txapeldu-norde!



◆ Zorionak **Lucia Zabaletari** hilaren 22an 6 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.

◆ Zorionak **Mira-ri Alberdiri** hilaren 20an urteak bete zituelako eta oraindik sasoi-**an dagoela** esateko. Bikentziren partez.

◆ **Xabi Peñarandari** zorionak 6. mailako partez, gaur, hilak 23, 12 urte bete zituelako. Zorionak lehengusu-lehengusinen partez.

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK SALGAI



Etxebizitza bakarra

gelditzen zaigu

**EZ GALDU
AUKERA HAU!**

**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:**

20 83 16

MIMOX



Kurpegi berriarekin gatoz

- * Pelutxeak
- * Loreak
- * Ezkontzetarako erramuak
- * Modako jantziak
- * Opariak

zerbitzurik onena eskaintzera

San Franzisko, 19
Tel: 74 42 13 ELGOIBAR



mpresen
gestiogintza eta
zuzendaritzarako
goi mailako
karrera berri bat
Elgoibarren

kasle eta guraso
interesatuentzat,
Gestio Eskolaren
aurkezpena,
IMHko Areto
Nagusian,
maiatzaren 29an
arratsaldeko 7etan



Informazio gehiago

Gestio Eskolan (74 41 32) edo IMH eraikuntzan, (San Roke, 1 - 20870 Elgoibar)

